

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

57/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen baita kultura sustatzea helburu duten pizgarriak garatzeko.

Otsailaren 11ko 1/2019 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergan kultura sustatzeko pizgarriak aldatzen dituenak, aldaketak sartu zituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hamabosgarren xedapen gehigarrian.

Aipatutako xedapen gehigarriak ikus-entzunezkoen sektorean eragiten duen arauketa berri bat dakar. Alde batetik, baldintza jakin batzuk ezartzen ditu, orain arte ez zeudenak, gastuaren lurraldetasunarekin eta laguntzen intentsitatearekin lotuta, eta bestetik, kenkari berri bat arautzen du atzerriko film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko obren ekoizpenak fiskalki sustatzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoan egindako gastuari dagokionez.

Bestalde, arauan jasotzen diren hainbat kontzepturen zehaztapena eta kultura sustatzeko pizgarrien aplikaziorako beharrezkoak diren txosten arrazoituen erregulazioa erregelamenduz garatuko direla.

Horrela, foru dekretu honek helburu du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hamabosgarren xedapen gehigarria erregelamenduz garatzea, eta, horretarako, bi xedapen gehigarri sartzen ditu Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, seigarrena eta zazpigarrena.

Seigarren xedapen gehigarriak zehazten du zer obra hartuko diren ikus-entzunezko lan zailtzat, eta, orobat, zer baldintza bete beharko duen enpresa ekoizleak edo ekoizpen exekutiboaz arduratzen den entitateak foru arauaren hamabosgarren xedapen gehigarriko bat eta bi apartatuetan jasotako kenkariak aplikatzeko. Horrez gain, zehazten du zein unetan bete beharko den euskal partaidetza tekniko eta/edo artistikoaren beharkizuna, eta noiz justifikatu beharko den laguntzen intentsitatea.

Zazpigarren xedapen gehigarriak, bere aldetik, ezartzen du txosten arrazoitua egiteko organo eskuduna gaia dela-eta Eusko Jaurlaritzan eskumena duen Saila edo hari atxikitako organismo edo entitate bat izango dela. Orobat, dekretuak arautzen ditu foru arauan aipatzen den txosten arrazoitua egiteko «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena» deitua- aintzat hartu behar diren prozedurazko alderdiak.

Bestalde, foru dekretuak bi xedapen iragankor biltzen ditu. Lehenengoak ezartzen du ekoizpena foru dekretua indarrean jarri aurretik amaitzen denean epe berezi bat egongo dela txostena eskatzeko. Eta bigarrenak xedatzen du 2020ko uztailaren 1a baino lehen amaitzen diren ekoizpenei ez zaiela aplikatuko kreditu tituluei buruz araututakoa.

Bukaeran, azken xedapen bakarrak arautzen du foru dekretua noiz jarriko den indarrean eta zer ondorioak izango dituen.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Decreto Foral 57/2019, de 27 de diciembre, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades para desarrollar los incentivos para el fomento de la cultura.

La Norma Foral 1/2019, de 11 de febrero, por la que se modifican los incentivos para el fomento de la cultura en el impuesto sobre sociedades, modifica la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La citada disposición adicional recoge una regulación novedosa con incidencia en el sector audiovisual. Por un lado, recoge unos requisitos de territorialización del gasto y de intensidad de las ayudas, no previstos hasta ahora, y por otro, introduce una nueva deducción, que incentiva las producciones extranjeras de largometrajes cinematográficos o de obras audiovisuales, en cuanto al gasto realizado en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

Además, remite a un desarrollo reglamentario posterior la precisión de determinados conceptos contenidos en la norma, y la regulación de los informes motivados preceptivos para la aplicación de los incentivos para el fomento de la cultura.

Así, el presente decreto foral tiene por finalidad acometer el desarrollo reglamentario de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y para ello adiciona dos disposiciones adicionales al Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, la disposición adicional sexta y la séptima.

La disposición adicional sexta determina qué obras tendrán la consideración de obras audiovisuales difíciles, y establece los requisitos que se deberán cumplir para aplicar las deducciones referidas en los apartados uno y dos de la disposición adicional decimoquinta de la norma foral. Además, precisa el momento en que deberá cumplirse el requisito de participación técnica y/o artística vasca, y aquél en que deberá justificarse la intensidad de las ayudas.

La disposición adicional séptima determina el órgano competente para elaborar el informe motivado, que es el Departamento del Gobierno Vasco competente por razón de la materia o un organismo o entidad adscrito al mismo. A su vez, regula los aspectos procedimentales que acompañan a la emisión del informe motivado aludido en la norma foral, el cual se denomina «Informe para la aplicación del incentivo fiscal».

Por otra parte, en el propio decreto foral se establecen dos disposiciones transitorias. La primera establece un plazo especial para solicitar el informe cuando la producción hubiera finalizado antes de la entrada en vigor del decreto foral. Y la segunda, establece que lo regulado en materia de títulos de crédito no será exigible a las producciones que finalicen antes del 1 de julio de 2020.

Por último, la disposición final única regula la entrada en vigor del decreto foral y sus efectos.

Araugintzako ahalmenari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak azken xedapenetako bigarrenean dio Foru Aldundiak eta Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak behar diren xedapen guztiak eman ditzaketela foru arau hori garatu eta gauzatzeko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko zerga aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan:

Bat. Beste xedapen gehigarri bat eranstean da, seigarrena, eduki hau duena:

«Seigarren xedapen gehigarria. Kultura sustatzeko pizgarriak.

1. Zergaren foru arauko hamabosgarren xedapen gehigarriak bat.3.b) apartatuko azken paragrafoan aipatzen duen baldintza filmaketa hasten den zergaldian bete beharko da.

2. Zergaren foru arauko hamabosgarren xedapen gehigarriak lau apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ikus-entzunezko lan zailtzat:

- a) Jatorrizko bertsioa euskaraz bakarrik duten obrak.
- b) Emakumeek bakarrik zuzendutako film luzeak, baldin eta haien artean lehenengo 6 film luzeak baldin badira.
- c) Errealizadore berriek zuzendutako ekoizpenak.
- d) Film laburrak.
- e) Aurrekontu txikiko obrak, hau da, gehienez 500.000 euroko ekoizpen kostua dutenak.

3. Hamabosgarren xedapen gehigarriaren bat eta bi apartatuetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko, honako hau egin beharko da:

a) Gipuzkoako Foru Administrazioari eta eskatzen duten Euskadiko Administrazio Publikoetara erraztu edo ahalbidetu filmaketako material grafiko eta ikus-entzunezkoa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko lokalizazioak eskuratzea merkataritzakoa ez den xede bat emateko eta eskusiboki Autonomia Erkidegoa ezagutarazteko (Teaser, trailerrak, making of-ak, EPK, EAEko filmaketen eszenak, argazkiak).

Obra estreinatu eta bi hilabete igaro arte, eskuratze hori ez da nahitaezkoa izango.

b) Hasierako kreditu tituluetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren logotipoa sartu.

c) Bukerako kreditu tituluetan honako hau sartu: «La producción se ha acogido a los incentivos fiscales previstos en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa»/»Ekoizpen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan aurreikusten diren zerga-pizgarrien babesarekin egin da»/»This production has benefited from the tax deductions included in the Corporate Tax Law of Gipuzkoa».

4. Hamabosgarren xedapen gehigarriaren bat eta bi apartatuetako kenkariak aplikatzeko autolikidazioa aurkeztearekin batera, zergadunak zerrendatu behar ditu erakunde publikoetatik jaso dituen bestelako laguntzak edo dirulaguntzak, horiek kontuan hartuko baitira xedapen gehigarri horren lau apartatuetan aipatzen diren gehieneko kenkari kopuruak betetzen diren zehazteko.»

Por lo que a la habilitación normativa se refiere, la disposición final segunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades habilita a la Diputación Foral y a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la mencionada norma foral.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Impuesto sobre Sociedades.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio:

Uno. Se añade una disposición adicional nueva, la sexta, con el siguiente contenido:

«Disposición adicional sexta. Incentivos para el fomento de la cultura.

1. El requisito previsto en el último párrafo del apartado uno.3.b) de la disposición adicional decimoquinta de la norma foral del impuesto deberá cumplirse en el periodo impositivo de inicio del rodaje.

2. A los efectos de lo dispuesto en el apartado cuatro de la disposición adicional decimoquinta de la norma foral del impuesto, tendrán la consideración de obras audiovisuales difíciles las siguientes:

- a) Las obras cuya única versión original sea en euskera.
- b) Los largometrajes dirigidos exclusivamente por mujeres, siempre que para todas ellas se trate de los 6 primeros.
- c) Las producciones dirigidas por un nuevo realizador o una nueva realizadora.
- d) Los cortometrajes.
- e) Las obras de bajo presupuesto, entendiéndose por tales aquellas cuyo coste de producción no supere 500.000 euros.

3. Para aplicar las deducciones reguladas en los apartados uno y dos de la disposición adicional decimoquinta, se deberá:

a) Proporcionar o permitir, a la Administración Foral de Gipuzkoa, así como a aquellas Administraciones públicas del País Vasco que así lo requieran, el acceso al material gráfico y audiovisual del rodaje y localizaciones de la Comunidad Autónoma Vasca, para su uso no comercial y exclusivo para la promoción de la misma (Teaser, tráiler, making of, EPK, escenas rodaje Comunidad Autónoma Vasca, fotografías).

Dicho acceso no será obligatorio hasta que hayan transcurrido dos meses desde su estreno comercial.

b) Incluir en los títulos de crédito iniciales el logotipo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Incluir en los títulos de crédito finales, «La producción se ha acogido a los incentivos fiscales previstos en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa»/»Ekoizpen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan aurreikusten diren zerga-pizgarrien babesarekin egin da»/»This production has benefited from the tax deductions included in the Corporate Tax Law of Gipuzkoa».

4. El contribuyente deberá presentar, junto con la autoliquidación del impuesto en la que se acoja a las deducciones establecidas en los apartados uno y dos de la citada disposición adicional decimoquinta, una relación de las demás ayudas o subvenciones públicas recibidas para determinar el cumplimiento de las intensidades máximas de deducción a que se refiere el apartado cuatro de la mencionada disposición adicional.»

Bi. Beste xedapen gehigarri bat eransten da, zazpigarrena, eduki hau duena:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. Kultura sustatzeko pizgarrien aplikaziorako txosten arrazoituak.

1. Eusko Jaurlaritzan gaiagatik eskumena duen Saila edo hari atxikitako organismo edo entitate bat izango dira zergaren foru arauak hamabosgarren xedapen gehigarriko bost apartatuan aipatzen dituen txosten arrazoituak egiteko organo eskuduna.

2. Hamabosgarren xedapen gehigarriko bat eta bi apartuetan jasotzen diren kenkarien ondorioetarako, «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena» bat eta bakarra izango da. Txosten hori nahitaezkoa da, eta kalifikazio positiboa jasotzea ezinbestekoa izango da kenkariak aplikatu daitezen. Txostenak ondorioak sortuko ditu Zerga Administrazioarentzat, hurrengo 9. apartatuan ezartzen diren terminoetan.

3. «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena» epe hauetan eskatu beharko da:

a) Espainiako film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen produkzioetarako, 8 hilabeteko epean nazionalitatearen ziurtagiria lortzen denetik aurrera.

b) Atzerriko film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko obren produkzioetarako, 8 hilabeteko epean ekoizpena Euskadiko Autonomia Erkidegoan bukatzen denetik aurrera. Ondorio horietarako, ulertuko da ekoizpena Euskadiko Autonomia Erkidegoan bukatzen dela talde teknikoko azken pertsonari Gizarte Segurantzari baja ematen zaion egunean eta, bestela, filmaketa amaitu eta 3 hilabetera.

4. Txostenaren eskaerari dokumentazio hau erantsiko zaio:

a) Espainiako film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen produkzioetarako:

– Filmaketa hasi izanaren komunikazioa.

– Filmaketa bukatu izanaren komunikazioa.

– Filmaketa plana, Euskadiko Autonomia Erkidegoko barnealde zein kanpoaldeetan zein egun eta ordu zehatzetan filmatzen den adierazi behar duena.

– Ekoizpenaren jatorrizko bertsioa zer hizkuntzatan dagoen.

– Hamabosgarren xedapen gehigarriko bat.3.b) apartatuan aipatzen diren pertsonen lan kontratua edo zerbitzu prestazioarena.

– Koprodukzioen kasuan, koprodukzioaren kontratua, non zehaztu behar baita zer partaidetza portzentaje dagokion koproduktore bakoitzari. Orobat, justifikatu behar da hamabosgarren xedapen gehigarriko bat.3.b) apartatuan ezarritako beharkizuna koprodukzio espainiarraren zatiari dagokionez betetzen dela.

– Obra zinematografiko edo ikus-entzunezkoen nazionalitate ziurtagiria, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 5. artikuluan aipatua.

– Film eta ikus-entzunezko obrei emandako kalifikazioa, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 8. artikuluan aipatua.

– Abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretuak, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatzen duenak, 22. artikuluan aipatzen duen kultura ziurtagiria.

– Euskal Filmotekan produkzioaren kopia berri bat utzi izanaren frogagiria.

– Euskadiko Autonomia Erkidegoan egindako gastuaren auditoretza txostena. Koprodukzioen kasuan, txosten horrek koproduktore bakoitzak egindako gastuak zehaztu beharko ditu.

Dos. Se añade una disposición adicional nueva, la séptima, con el siguiente contenido:

«Disposición adicional séptima. Informes motivados para la aplicación de los incentivos para el fomento de la cultura.

1. Tendrá la consideración de órgano competente para la emisión de los informes motivados a que se refiere el apartado cinco de la disposición adicional decimoquinta de la norma foral del impuesto, el Departamento del Gobierno Vasco competente por razón de la materia o un organismo o entidad adscrito al mismo.

2. A efectos de las deducciones previstas en los apartados uno y dos de la disposición adicional decimoquinta, existirá un único informe «Informe para la aplicación del incentivo fiscal». Este informe resultará de carácter obligatorio y su calificación favorable será preceptiva de cara a poder aplicar las deducciones citadas. El informe tendrá efectos ante la Administración tributaria en los términos previstos en el apartado 9 siguiente.

3. La solicitud para la emisión del «Informe para la aplicación del incentivo fiscal» se presentará:

a) Para las producciones españolas de largometrajes cinematográficos y de series audiovisuales, en el plazo de 8 meses desde la obtención del certificado de nacionalidad.

b) Para las producciones extranjeras de largometrajes cinematográficos o de obras audiovisuales, en el plazo de 8 meses desde la finalización de la producción en la Comunidad Autónoma Vasca. A estos efectos, se entenderá finalizada la producción en la Comunidad Autónoma Vasca en la fecha en que se dé la baja en la Seguridad Social a la última persona del equipo técnico, y en todo caso, a los 3 meses desde la finalización del rodaje.

4. A la solicitud de informe se le acompañará la siguiente documentación:

a) Para las producciones españolas de largometrajes cinematográficos y de series audiovisuales:

– Comunicación de inicio de rodaje.

– Comunicación de fin de rodaje.

– Plan de rodaje en el que se especifiquen los días y horas exactas de rodaje en interiores o exteriores en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

– Idioma de la versión original de la producción.

– Contrato de trabajo o de prestación de servicios de las personas a que se refiere el apartado uno.3.b) de la disposición adicional decimoquinta.

– En caso de coproducción, contrato de coproducción en el que se especifique el porcentaje de participación de cada coproductor en aquella y justificación de que el requisito establecido en el apartado uno.3.b) de la disposición adicional decimoquinta se cumple respecto a la parte de coproducción española.

– Certificado de nacionalidad de las obras cinematográficas y audiovisuales a que se refiere el artículo 5 de la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine.

– Resolución de calificación de las películas y obras audiovisuales a que se refiere el artículo 8 de la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine.

– Certificado cultural a que se refiere el artículo 22 del Real Decreto 1084/2015, de 4 de diciembre, por el que se desarrolla la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine.

– Acreditación del depósito de una copia nueva de la producción en la Filmoteca vasca.

– Informe de auditoría, que deberá especificar el gasto efectuado en la Comunidad Autónoma Vasca. En el caso de coproducción deberá especificar los gastos efectuados por cada coproductor.

– Seigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran aipatzen diren administrazioei letra horretan aurreikusitako iris-
pidea izatea ahalbidetzen dien dokumentua.

– Seigarren xedapen horren 3. apartatuko b) eta c) letretan ezarritako beharkizunak betetzen direla frogatzen duen doku-
mentazioa.

– Behar den kasuetan, justifikatuko da produkzioak beha-
rrezko baldintzak betetzen dituela ikus-entzunezko lan zailtzat
hartzeko, seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xeda-
tutakoaren arabera.

– Jasotako laguntza edo dirulaguntza publikoen aitortpena.

b) Atzerriko film luze zinematografikoen edo ikus-entzu-
nezko obren produkzioetarako:

– Produkzio exekutiboaz arduratzen den entitatea Kultura
eta Kirol Ministerioaren Zine eta Ikus-entzunezko Enpresen Ad-
ministrazio Erregistroan inskribatu izanaren justifikazioa.

– Produkzio exekutiboaren kontratuaren kopia.

– Filmaketa plana.

– Ikus-entzunezko produkzioaren kostu osoa.

– Euskadiko Autonomia Erkidegoan egindako gastuen audi-
toretza txostena, honako datuak zehaztuta: batetik, helbide fis-
kala Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide-
ren batean duten langile sortzaileen gastuak pertsona bakoitze-
ko berezita, eta, bestetik, industria teknikoak eta beste hornitza-
ile batzuk erabiltzeagatik sortutako gastuak.

– Behar den kasuetan, talde teknikoko azken pertsonari Gi-
zarte Segurantzari baja eman izanaren justifikazioa, aurreko
3.b) apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako.

– Seigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) letran
aipatzen diren administrazioei letra horretan aurreikusitako iris-
pidea izatea ahalbidetzen dien dokumentua.

– Seigarren xedapenaren 3. apartatuko b) eta c) letretan
ezarritako beharkizunak betetzen direla frogatzen duen doku-
mentazioa.

– Behar den kasuetan, justifikatuko da produkzioak beha-
rrezko baldintzak betetzen dituela ikus-entzunezko lan zailtzat
hartzeko, seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xeda-
tutakoaren arabera.

– Jasotako laguntza edo dirulaguntza publikoen aitortpena.

5. Produkzioak helbide fiskala Gipuzkoan duten beste en-
titate batzuekin koproduzitzen direnean, aurreko 2. apartatuan
aipatu den txostena izapidetuko da entitate guztiek izenpetu be-
harreko eskaera bakar batetik abiatuta, eta eskaera horretan
adierazi beharko da zer entitate izendatu den solaskidetzarako,
harremanetarako eta jakinarazpenetarako.

Txosten arrazoitua koprodukzioan parte hartzen duten eta
helbide fiskala Gipuzkoan duten entitate guztiei luzatuko zaie,
eta bertan baldintzen konplimendua identifikatuko da kopro-
duttore bakoitzari dagokionez.

6. Aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertu, izapidetu
eta ebaluatze aldera, eskaeren tramitazioan zehar, organo es-
kudunak zilegi izango du entitate eskatzaileei egoki irizten duen
dokumentazio eta informazioa eskatzea.

7. Ikus-entzunezko obra amaitutakoan, «Pizgarri fiskala
aplikatzeko txostenak» ziurtatu behar du obrak hamabosgarren
xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta
kenkarien oinarria osatzen duten gastu eta inbertsioen zenbate-
koa identifikatu beharko du, bakoitza bere aldetik. Txostenaren

– Documento que habilite el acceso a que se refiere la letra
a) del apartado 3 de la disposición adicional sexta, a favor de
las Administraciones referidas en la misma.

– Documentación que acredite el cumplimiento de los re-
quisitos previstos en las letras b) y c) del apartado 3 de la dis-
posición adicional sexta anterior.

– En su caso, justificación del cumplimiento de los requisi-
tos a efectos de la consideración de obra audiovisual difícil, de
acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 de la disposición adic-
cional sexta.

– Declaración de las ayudas o subvenciones públicas recibi-
das.

b) Para las producciones extranjeras de largometrajes ci-
nematográficos o de obras audiovisuales:

– Justificante de que la entidad encargada de la producción
ejecutiva consta en el Registro administrativo de empresas ci-
nematográficas y audiovisuales, del Ministerio de Cultura y De-
porte.

– Copia del contrato de producción ejecutiva.

– Plan de rodaje.

– Coste total de la producción audiovisual.

– Informe de auditoría de los gastos efectuados en la Comu-
nidad Autónoma Vasca. Este informe deberá desglosar, por un
lado, los gastos de personal creativo con residencia fiscal en Es-
paña o en algún Estado miembro del Espacio Económico Euro-
peo de forma individualizada por cada persona, y de otro, los
gastos derivados de la utilización de industrias técnicas y otros
proveedores.

– En su caso, acreditación de la baja en la Seguridad Social
de la última persona del equipo técnico, a los efectos de lo dis-
puesto en el apartado 3.b) anterior.

– Documento que habilite el acceso a que se refiere la letra
a) del apartado 3 de la disposición adicional sexta anterior, a
favor de las Administraciones referidas en la misma.

– Documentación que acredite el cumplimiento de los re-
quisitos previstos en las letras b) y c) del apartado 3 de la dis-
posición sexta anterior.

– En su caso, justificación del cumplimiento de los requisi-
tos a efectos de la consideración de obra audiovisual difícil, de
acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 de la disposición adic-
cional sexta.

– Declaración de las ayudas o subvenciones públicas recibi-
das.

5. Tratándose de producciones cuya realización se lleve a
cabo en régimen de coproducción con otras entidades con do-
micilio fiscal en Gipuzkoa, el informe mencionado en el apar-
tado 2 anterior se tramitará a partir de una única solicitud, sus-
crita por todas ellas, en la que se dejará constancia de la desig-
nación de la entidad que asumirá las funciones de interlocu-
ción, relación y notificación necesarias.

El informe motivado se emitirá individualmente a cada una
de las entidades participantes en la coproducción que tengan
domicilio fiscal en Gipuzkoa, e identificará el cumplimiento de
los requisitos con respecto a cada coproductor.

6. Durante la tramitación de las solicitudes, el órgano
competente podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta
documentación e información considere necesaria para la ade-
cuada comprensión, tramitación y evaluación de las solicitudes
presentadas.

7. El «Informe para la aplicación del incentivo fiscal» certi-
ficará, una vez finalizada la obra audiovisual, el cumplimiento
de los requisitos previstos en la disposición adicional decimo-
quinta, y deberá identificar, con la debida separación, el importe
de los gastos e inversiones que constituyan la base de las de-

arabera kenkarien oinarria osatzen ez duten gastu eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emango.

8. Organo eskudunak gehienez 6 hilabeteko epean jakinarazi behar du «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena», eskatutako dokumentazioa aurkezten denetik aurrera. Ebazteko epea iritsita organo eskudunak ez badu txostena jakinarazi, hura ez dela aldekoa izan ulertuko da.

9. «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena» loteslea izango da Zerga Administrazioarentzat hamabosgarren xedapen gehigarriari jasotzen diren beharkizunen konplimenduari dagokionez.

Zerga Administrazioak egiaztatuko du inbertsioak eta gastuak benetan egin direla eta egindako jarduerak txostenean jasotakoei egokitu zaizkiela; horretarako, beharrezko deritzon justifikazioa eskatu dezake edonoiz.

Orobat, xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aipatzen den organoari Zerga Administrazioak txosten osagarri bat aurkezteko eskatu diezaiotke, aipatutako beharkizunak betetzen diren ziurtatzeko.

10. Zergaren foru arauak 128. artikuluan xedatutakoa gorabehera, sozietateen gaineko zergaren autoliquidazioa aurkezteko epea amaitzen den egunean zergadunak oraindik ez badu jaso «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena», hilabeteko epea izango du, txostena egin izana jakinarazten zaionetik, autoliquidazioa zuzentzea eskatzeko eta zergaren foru arauko hamabosgarren xedapen gehigarriari aurreikusten diren kenkarien aplikazioa aukeratzeko; hori eginez gero, hautua 128. artikuluko epearen barruan egiten ari dela joko da.»

Lehen xedapen iragankorra. Foru dekretua indarrean jarri aurretik amaitutako ekoizpenak.

1. 2019ko urtarrilaren 1etik foru dekretu hau indarrean jarri arte ekoizpen bat amaitu duten ekoizleek bi epe hauetan eskatu dezakete «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena»: Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartuak, zazpigarren xedapen gehigarriaren 3.a) apartatuan ezarritako epean, edo, bestela, foru dekretu hau indarrean jarri eta 6 hilabeteko epean, azken hori bestea baino luzeagoa bada.

2. Atzerriko ikus-entzunezko obra baten ekoizpen exekutiboaz arduratzen diren enpresek gastuak egin badituzte Euskadiko Autonomia Erkidegoan 2019ko urtarrilaren 1etik foru dekretu hau indarrean jarri arte, eta gastu horiek kengarriak badira urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, hamabosgarren xedapen gehigarriaren bi apartatuan jasotakoren arabera, bi epe hauetan eskatu dezakete «Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena»: Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartuak, zazpigarren xedapen gehigarriaren 3.b) apartatuan ezarritako epean, edo, bestela, foru dekretu hau indarrean jarri eta 6 hilabeteko epean, azken hori bestea baino luzeagoa bada.

Bigarren xedapen iragankorra. Kreditu tituluak.

Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, seigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko b) eta c) letretan xedatutakoa ez zaie aplikatuko 2020ko uztailaren 1a baino lehen amaitzen diren ekoizpenei.

ducciones. No darán lugar a la aplicación de las deducciones los gastos e inversiones que, en virtud de dicho informe, no constituyan la base de las mismas.

8. El «Informe para la aplicación del incentivo fiscal» deberá notificarse por el órgano competente dentro del plazo máximo de 6 meses a partir de la presentación de la totalidad de la documentación requerida. Si llegado el plazo de resolución el órgano competente no hubiese notificado el informe, se entenderá que éste no es favorable.

9. El «Informe para la aplicación del incentivo fiscal» vinculará a la Administración tributaria en lo que se refiere al cumplimiento de los requisitos previstos en la disposición adicional decimoquinta.

Corresponderá a la Administración tributaria la comprobación de la efectiva realización de las inversiones y gastos y la adecuación de las actividades realizadas a las contempladas en el informe emitido, pudiendo recabar para ello, en cualquier momento, la justificación que estime necesaria.

Asimismo, la Administración tributaria podrá recabar del órgano a que se refiere el apartado 1 de esta disposición adicional informe ampliatorio en lo referente al cumplimiento de los citados requisitos.

10. No obstante lo dispuesto en el artículo 128 de la norma foral del impuesto, cuando en la fecha de finalización del plazo de presentación de la autoliquidación del impuesto sobre sociedades el contribuyente no hubiera obtenido el «Informe para la aplicación del incentivo fiscal», éste dispondrá del plazo de un mes, a contar desde la notificación de la obtención del mismo, para presentar una solicitud de rectificación de la autoliquidación, ejercitando la opción por la aplicación de las deducciones previstas en la disposición adicional decimoquinta de la norma foral del impuesto, entendiéndose en tal caso que está ejercitándola dentro del plazo previsto en el mencionado artículo 128.»

Disposición transitoria primera. Producciones finalizadas antes de la entrada en vigor del decreto foral.

1. Las productoras que hubieran finalizado una producción durante el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2019 y la entrada en vigor del presente decreto foral podrán solicitar el «Informe para la aplicación del incentivo fiscal» en el plazo previsto en el apartado 3.a) de la disposición adicional séptima del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, o en el plazo de 6 meses desde la entrada en vigor del presente decreto foral, cuando este plazo resulte mayor que el anterior.

2. Las empresas encargadas de la producción ejecutiva de una obra audiovisual extranjera que durante el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2019 y la entrada en vigor del presente decreto foral hubieran realizado gastos en la Comunidad Autónoma Vasca susceptibles de acogerse a la deducción prevista en el apartado dos de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, podrán solicitar el «Informe para la aplicación del incentivo fiscal» en el plazo previsto en el apartado 3.b) de la disposición adicional séptima del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, o en el plazo de 6 meses desde la entrada en vigor del presente decreto foral, cuando este plazo resulte mayor que el anterior.

Disposición transitoria segunda. Títulos de crédito.

Lo dispuesto en las letras b) y c) del apartado 3 de la disposición adicional sexta del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, no resultará exigible a las producciones que finalicen antes del 1 de julio de 2020.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak.

Donostia, 2019ko abenduaren 27a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(8270)

Disposición final única. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2019.

San Sebastián, a 27 de diciembre de 2019.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(8270)